

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, DIMAKO OBA GOIKOA AUZOAN LUIZIAK ERAGINDAKO HORNIDURA-SAREA HOBETZEKO OBRA KONTRATATZEKO, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIAK MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN. 3129. ESPEDIENTEA

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLaren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLaren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aizpea Urrutia Elorriaga
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: DIMAKO OBA GOIKOA AUZOAN LUIZIAK ERAGINDAKO HORNIDURA-SAREA HOBETZEA. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Obako Atxa mendiaren hegalean izandako luiziaren ondorioz, Artaungo depositutik doan lidezuriko deposituko bultzatze-hodia hautsi zen, eta behin-behineko linea bat eraiki behar izan zen prekarioan. Luiziaren ondorioz lidezuriko deposituak kalterik jasan ez bazuen ere, gaur egun ez dabil eta agerian geratu da depositua eta Oba Bekoa auzoko balbula-gela lotzen dituen eroanbideak ihesak dituela. Egoera horrek agerian utzi du udalerriko sarearen hauskortasuna, udalerriaren hedadura dela eta, eta auzoen artean oso kota-alde nabarmenak daudela eta. Horregatik, proiektu honek barne hartzen ditu FD DN100 bultzada-linea berreraikitzea, gutxi gorabeherako luzera 1.300 metro izanik, eta lidezuriko deposituaren banaketa-linea (FD DN100) 1.800 metrotan, behin-behineko hodia kentzeko ordezkotrazadura bat bilatuz. Horien trazadura aprobetxatuz, bidezko konexioak egingo dira Oba Goikoa eta Oba Bekoa auzoak banaketa-sare berrietik hornitzeko. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontratua loteka banatuta exekutatzek oztopatu egingo luke kontratua behar bezala exekutatzea ikuspegi teknikitik, eta, halaber, arriskuan jarriko luke egin beharreko lan guztiak koordinazioz egitea, eta, ondorioz, erasan handiagoa izango luke zonako abonatueta, hornidura-mozketa gehiago izango bailirateke. Loteka banatzeak oztopatu egingo luke, halaber, ingurumen-kontrola behar bezala kudeatzea, hondakinak kudeatzea eta obretako segurtasun- eta osasun-arauak aplikatzea lanetan.

B.- KONTRATUAREN XEDEA
4.- CPV: CPV kodea eta deskribapena: - 45232150-8 Urak banatzeko hoditeriekin lotutako lanak - 45240000-1 Eraikuntza-lanak proiektu hidraulikoetarako
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (651.924,37 EURO).
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 651.924,37 euro. Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 45210 60113 - 2025. urtea: 150.000,00 euro (BEZ gabe) - 2026. urtea: 501.924,37 euro (BEZ gabe)	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☒ BAI ☐ EZ Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.	

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

- % 80ko baterako finantzaketa (BEZari dagokiona izan ezik).

7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagiri bidez.

8.- Konturako ordainketak: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: Bederatzi (9) HILABETE,

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa, baina inoiz ez URTEBETE (1) baino gutxiago.

5.- Kontratua exekutatze tokia: DIMAKO OBA GOIKOA AUZOA.

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Ez dagokio.

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kontratuari atxiki beharreko giza baliabideak/baliabide materialak:

Obraburu bat, gutxienez 10 urteko esperientzia duena antzeko obretan eta, halaber, kontratistaren ordezkari gisa ere jardungo duena 18. klausulan adierazitakoari jarraikiz.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea, 1. azpitaldea, 3. kategoria.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena eta administrazio-klausula partikularren agiri

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

honen 15. klausulan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren betebeharrei buruz jasotako gainerako dokumentazioa.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia (20 puntu)

- Proiektuaren analisia:

Lizitatzailleak proiektuaren azterketa bat egingo du, bai eta proiektuaren dokumentazioari buruzko ondorioen zerrenda bat eratu ere, horri buruzko ezagutza-maila adierazteko. Horrez gainera, haren garapenean eragina izan lezaketen kanpoko baldintzatzaileen azterketa baloratuko da, baita lizitatzailleak kontraturako garrantzitsutzat jotako beste edozein inguruabar ere. Besteak beste, hirugarrenei eragindako kaltea minimizatzeko azterketa baloratuko da, bai eta erreka edo foru-errepideak gertu egotea ere.

- Obra-exekuzioaren azterketa:

Obran aurreikusitako jarduketa nagusietako bakoitzean, beharrezko eraikuntza-prozesuak aztertuko dira, jarduketa bakoitza gauzatzean gairiditu beharrezko zailtasunak identifikatzeaz gainera: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, metaketak, obrarako sarbideak, etab. Horretarako proposatutako metodoak eta bitartekoak ere zehaztu egingo dira.

b) Obran erabilgarri dauden bitartekoak -Lanek eta obran erabilgarri dauden bitartekoen programazioa (25 puntu)

- Obran erabilgarri dauden bitartekoak:

Obrarako proposatutako antolamenduaren organigrama eta deskribapen funtzionala aurkeztuko dira, obrari esleituko zaion ekipoa eta haren dedikazioa zehaztuta eta ekipoen kualifikazioa eta esperientzia adierazita. ABEEen kasuan, argi eta garbi zehaztu beharko da eginkizunen banaketa enpresa parte-hartzaileen artean. Proposatutako ekipoen zerrenda zehatuko da, horien kopurua eta dimentsionamendua zehazteaz gainera eskulanari eta makineriari dagokionez, bai eta horien jabetza eta obran erabiltzeko konpromisoak ere, ondo funtsatuta betiere. Lizitatzailleak lanen zati bat hirugarrenekin itundu beharra aurreikusten badu, horien izena, erreferentziak eta aurrekontu osoan izango duten ehunekoa adierazi beharko ditu, konpromiso-gutunez gainera, bai eta enpresa-profila edo sailkapena ere. Laburpen-taula bat aurkeztuko da obran hornitu beharrezko materialen –batik bat, obrarako funts-funtsezkoak diren– zerrendarekin.

- Hodiak
- Balbulak
- Bentosak
- Presioa murrizteko balbulak

Eskaintako materiala loteslea da, eta esleipendun izanez gero, kontratistak ezinbestean hornitu beharko du material horretaz.

- Obraren plangintza orokorra eta lan-programa:

Koherentzia baloratuko da obretarako egindako planteamendu orokorrean, obren kokapena eta obrak exekutatzeke proposatutako bitartekoak kontuan hartuta. Lan-programazio bat ere sartuko da, obran

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

erabilgarri jarritako ekipo eta bitartekoen arabera behar bezala justifikatuta egonik proposatutako errendimenduekiko koherentziari eusten diona betiere. Bereziki, honako hauek baloratuko dira:

- Xehetasun-maila jardueren definizioan eta koherentzia horien sekuentzian hainbat obra-lan exekutatzeari dagokionez.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta zehaztutako jardueren gutxi gorabeherako iraupen errealdaren justifikazioa.
- Gantt diagramaren medioz irudikatutako obra-planaren zehaztapena, bai eta bide kritikoaren eta lasaiera-sorkuntzaren azterketarena ere.

c) Ingurumen-irizpideak (3 puntu)

Honela baloratuko da:

- 2 puntu: Gehienez 2 puntu obrak dirauen bitartean garatu beharreko prozedura- eta baliabide-proposamenei, baldin eta obraren ezaugarri eta berezitasunetara egokituta badaude, jomuga lanak exekutatzean ingurumen-inpaktuen prebentzioa eta minimizazioa bermatzea izanik.
- 1 puntu: Gehienez 1 puntu obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenei. Horretarako, Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen gisa, taula bat jaso beharko da, obran sortuko diren hondakinak (aurreikuspenen arabera), horien kopuruak eta aurreikusitako tratamendu-eragiketa (balorizazioa/ezabaketa) adierazita.

d) Irizpide sozialak (2 puntu)

- Kontratua exekutatzen duten langileei aplikatutako berdintasun-neurriak. Gehienez 2 puntu:
- Kontratua exekutatzen duten langileei berdintasun-esparruan emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak.

Dokumentazio teknikoaren edukia gehienez DIN A4 neurriko 30 orrialdetara mugatu beharko da, eta karaktereen gutxieneko tamaina Microsoft Wordko '11' Arial izango da. Apartatu bakoitzerako orrialdeen banaketa lizitatzailerak aukeratuko du, eta ordena logiko bati jarraikiz zenbakitu beharko dira. Salbuespen gisa, DIN A1 eta DIN A3 orriak sartu ahalko dira, aurkezteko formatu horiek behar dituzten dokumentuetarako. Orrien guztizko zenbaketaren ondoreetarako, ez dira kontuan hartuko ez azalak ez aurkibideak, ez eta obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa ere (informazio hori eranskin batean erantsi beharko da, bereiz). 30 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 30 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZA izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Eskaintako prezio unitarioen zerrenda:

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

Unitatearen zuzeneko kostuari % 7 gehituz lortuko dira prezio horiek, zeharkako kostu gisa.

Enpresa lehiatzaileak konpromisoa hartuko du, esleipendun izanez gero, Prezioen 2. Taula eratzeke, bere eskaintzan agertzen den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, dokumentu horren helburuetarako egokia den egitura batekin. Azkenik, obren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, Zuinketaren Egiatzenaren Akta sinatu eta lehen hilabetea amaitu baino lehen.

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanen, makinen eta materialen oinarritzko prezio unitarioen zerrenda.

Eskaintako kontratuaren aurrekontua

- Exekuzio materialerako aurrekontua, enpresa lehiatzaileak eskaintako prezio unitarioak lizitazio-proiektuaren neurketei aplikatzean oinarrituta egina. Aurrekontu hori PRESTO programan gauzatu beharko da, eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko bertsio bat ere aurkeztu beharko da. Aipatutako programak ez izanez gero, BC3 formatuan aurkeztea ere onargarria izango da.
- Obra-exekuziorako aurrekontua, exekuzio materialerako aurrekontuari "Gastu Orokorrak eta Onura Industrialak" kontzeptua (% 19) aplikatzearen ondoriozkoa.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (titularrak):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (titularra):
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoearekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2.....	48 puntu
BBM.....	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Alderdi teknikoaren irizpideak eta haztapena honako hauek izango dira:

- | | |
|---|----------|
| - Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia | 20 puntu |
| - Obran erabilgarri dauden bitartekoak | 25 puntu |
| - Ingurumen-irizpideak | 3 puntu |
| - Irizpide sozialak | 2 puntu |

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- Enpresa batek plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena izatea; berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finko gehien dituen lehenetsiko da, edo plantillan inklusio-neurrien bidezko langile gehien dituen.
- Enpresa batek plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena izatea.
- Enpresa batek plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena izatea.
- Zozketa egingo da, aurreko irizpide horiek aplikatuta ez bada lortu enpresen arteko berdinketa haustea.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.

- Lau lizitatzaileri edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztatzea.
Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra.

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatzekoa

Q.- ERREKURTZO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despoblazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren **5. osagaiaren barruan («Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea») 3. inbertsioa dago («ERALDAKETA DIGITALA URAREN SEKTOREAN [INGURUMEN-ENFORCEMENT DIGITALA]»).** Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

C5.I3a azpineuria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeko buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I3a azpineurrian sartzen direnez, egingo diren jarduerak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren «Klimaren aldeko ekintzaren jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren «Ura kudeatzea eta ur-baliabideak kontserbatzea (ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketa egokitze neurri espezifikoak, berrerabilpena, ihesak murriztea barne)» 040 esku hartzeko eremuarekin.

	Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarrak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKET A:	ESEPE URA 2 (A05) – EFIZIENTZIA HIDRAULIKOA HODIAK BERRITUZ HOBETZEA
Kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorcioideaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Obren zuzendaritza:

Partzuergoaren barnean eskudumena duten zerbitzuek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, Obra Zuzendaritzaren bitartez, zeinak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo baitu kontratatutako obra behar bezala gauzatzen dela, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 4. eta 24. klausuletan xedatutakoari jarraituz.

Obraren seinaleak eta kartelak:

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu behar ditu Proiektuaren Laneko Segurtasun eta Osasun Azterlanean adierazitako elementuak, honako hauek adierazteko behar diren seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, zirkulazioa lanetarako eremuan, lanak exekutatzearen ondoriozko balizko arrisku-puntuak, bai eremu horretan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan, eta Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 23. klausulan aipatzen diren aginduak bete behar ditu.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obrarako udal-lizentzia izan ezik, aldarmioak, pasabideak, hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko, eta abarretarako, eta haren kontura izango dira, oso-osorik, nola tasak, hala horien kudeaketak dakartzan gastuak. Udalak

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

obretarako udal-lizentzia gisa fakturatutako zenbatekoa soilik geratzen da aurreko gastutik kanpo, hala badagokio.

Era berean, bere gain hartuko ditu beste erakunde batzuen –hala nola Foru Aldundiaren– baimenak izapidetzeari dagozkion gastu guztiak –adibidez, abalak–, bere eskumeneko arloetan jazotako gurutzetak eta/edo jarduketak direla-eta.

Baloratutako zerrendak

Hileko baloratutako zerrendak –kontratistak proposatutakoak– BC3ko ziurtagiri-formatuan aurkeztu beharko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkar horrek eta enpresaren adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.